



2026-2027 DEIALDIA

KARRIKAN ZUBIAK

**Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak
kofinantzatutako proiektua**

ZER DA KARRIKAN

KARRIKAN Kaleko Arteetan Euskal Herriko artista berrien sorkuntza eta hedapena sustatu nahi duen plataforma da. Aurten, **KARRIKAN ZUBIAK** proiektuak Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen laguntza eta lankidetzat du, eta, beraz, mugaz gaindiko izaera sendotu eta areagotu egiten da.

KARRIKAN hauek osatzen dute:

Bazkideak: Kalealdia Jaialdia (Bilbo), Kaldearte Jaialdia (Gasteiz), “Le Mai du Théâtre” Jaialdia (Hendaia), Leioako Umore-Azoka (Bizkaia), Iruñeko Udala (Nafarroa), Antsoaingo Udala (Nafarroa), TOPADA Fabrika elkarte (Lapurdi) eta Karrika Elkartea, proiektuaren liderra.

Jaialdiak eta udalerri elkartuak: Arrigorriaga, Errenteria, Lezo eta Kalerki Jaialdia (Zarautz).

Egoitza elkartuak: Gipuzkoako Dantzagunea (Errenteria), Garaion-Sorgingunea (Otaza, Araba) eta Zirkodomoa (Bagatza).

Zer babestu nahi dugu? Plataformak kolektibo, artista eta **sortzen ari diren** konpainien **sorkuntza originalak** babestu nahi ditu, profesionalak edo profesionalizatzeko bidean daudenak, espazio publikoan diharduten Euskal Herrian (7 probintzia historiko) kokatuta daudenak. “Kaleko arteak” nozioari balio berezia emango zaio aukeraketan. “Zuzeneko ikuskizunaren” diziplina guztiak onartuko dira: antzerkia, dantza, zirkua, diziplina anitzekoa, etab. **Hala ere, testurik gabeko edo euskarazko proiektuei lehentasuna emango zaie.** Azkenik, formatu txiki edo ertaineko ikuskizunak baloratuko dira.

Deialdi honen helburua da **konpainia bat** hautatzea **2025eko urritik 2027ko maiatzera bitartean bere sortze-prozesua gara dezan.** Deialdi honetan jasotako laguntzek bultzatzen dute prozesu hori, eta haren helburua da **ikuskizuna estreinatzea 2027ko Umore Azokan eta KARRIKANeko bazkide eta bazkide elkartutako jaialdietan 2027ko maiatzetik irailera bitartean biratzea.**

HAUTAKETA IRIZPIDEAK

Lagundu beharreko proiektuak hautatzerakoan, honako hauek izango dira erabakigarriak:

- Originaltasuna eta planteamendu artistikoaren eskakizuna
- Proiektuaren bideragarritasuna
- Laguntzen deialdiaren egutegia errespetatzea
- Artisten edo konpainiaren bizilekua (Euskal Herriko 7 probintzia historiko)
- Zuzendari profesional baten laguntza edo “kanpo-ikuspegia”
- Kaleak proposamen eszenikorako espazio gisa duen garrantzia
- Publikoekiko harreman-prozesuaren barruan planteatutako bitartekaritzek duten lotura

LAGUNTZAK

KARRIKANeko kideek hautatutako proiektua babesteko konpromisoa hartu dute, honela:

SORKUNTZARAKO LAGUNTZAK

- **Doako bi prestakuntza-saio.** Horietako bat Euroeskualdearen kudeaketari, administrazioari, banaketari eta salmentari buruzkoa izango da estatu espainiarrean, eta bestea Euroeskualdearen errealitate administratiboari buruzkoa, Iparraldeko ekosistema eta haren desberdintasun fiskalak mapeatuz.
- **Hiru sorkuntza-egoitza** espazio desberdinetan. Arabako Garaion Sorgingunea, Hendaiako Mendi Zolan eta Iparraldeko TOPADA Fabrika, Karrikako arteen Fabrikak koordinatutako espazioetako batean egingo dira. Proiektuak **2000€**-ko diru-poltsa izango du aldi horietako kostu eta ordainsarietarako. Egoitzek astebete inguruko iraupena izango dute eta datak harrera gune bakoitzarekin itxiko dira.
- **Diru-poltsa bat kanpo-begirada bat estaltzeko, 2000 €**-koa (zergak barne), sorkuntzarekin batera doan pertsona edo kolektiboarentzat, faktura aurkeztu ondoren.
- **Sorkuntzarako laguntza, 5750 €**-koa (zergak barne).
- **Bitartekaritza-jarduerak:** 3 tailer/topaketa aurreikusi dira, edo haiei lotutako guneetan garatuko diren bestelako jarduerak, betiere horien helburua proiektuaren bitartekotza, publiko-mota desberdinekiko lotura, elkar-sorkuntza edo proiektuari eta/edo ikuskizunari lotutako komunitate-lana bada. Jarduera horietako bakoitza **500€**-rekin ordainduko da (zergak barne). Bazkideen gune eta testuinguruetan edo bazkide elkartutako guneetan gertatuko dira.

ERAKUSKETARAKO LAGUNTZAK

- 2027ko ikuskizunaren kontratazioa barne dela **10 data 1.800 €ra** (zergak eta gastuak barne): Leioa, Hendaia, Bilbo, Gasteiz, Antsoain, Iruña, Zarautz, Lezo, Errenteria eta Arrigorriaga. Data horiek 2027ko maiatzetik urrira bitartean izango dira.

KOMUNIKAZIORAKO LAGUNTZAK

- Ikuskizunari ikusgarritasuna emanaz **KARRIKAN**en webgunean eta haren komunikazio ekintzetan.
- Hautatutako proiektua prentsa-oharretan, ekitaldi publikoetan (konpainiarekin hitzartu beharrekoa) eta proiektuaren webgunean www.karrikan.eu argitaratzea.

HAUTAGAIEN KONPROMISOA

- Euskaraz argitaratu gabeko edo kalerako testurik gabeko proiektu artistiko bat aurkeztea, gutxieneko eskaera tekniko batzuekin, eguneko ordutegian, **gutxienez 20 minutuko iraupena eta gehienez 50ekoa, 2027ko maiatzean estreinatua izateko.**
- 2027ko maiatzetik irailera bitartean **KARRIKAN**eko bazkide eta bazkide elkartuek antolatutako jaialdi edo programetako denboraldietan parte hartzeko aukera izatea.
- Deialdian nahitaezko diren ekintzak egitea laguntza eman eta hurrengo 18 hilabeteetan, bazkideen guneetako sorkuntza-egoitzak barne.
- Aurrehautatua izanez gero, **2025eko urriaren 30erako prest egotea** Gipuzkoako Dantzagunean (Errenteria) bere proiektua **KARRIKAN**eko bazkideei aurkezteko.
- Fakturak egiteko aukera izatea eta jasotako laguntzaren zenbatekoa fakturen

bidez justifikatzea. Baldintza hori bete ezean, proiektuak onuradunari eska diezaioke beka itzul dezala, osorik edo zati batean.

- Bazkideei laguntzea prozesuaren segimendua egiten (bilerak, galdetegiak, ebaluazioak, etab.) Baldintza hori bete ezean, proiektuak onuradunari eska diezaioke beka itzul dezala, osorik edo zati batean.
- Ikuskizunarekin zerikusia duten komunikazio-euskarri guztietan Euroeskualdearen logoa, **KARRIKAN**en logoa, proiektuko bazkideena, eta **“Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak kofinantzatutako proiektua”** proiektuaren bizitzan zehar nahitaez aipatu beharrekoa jartzea, baita haren webgunean, bideoan edo dosierrean ere.

Bazkideen jaialdietako datak aldatu ahal izango dira 2027rako, eta hautatutako konpainiei behar bezala jakinaraziko zaizkie, konpromiso guztiak data horretan mantentzeko.

Baldintzak bete ezean, **KARRIKAN**eko kideek laguntza osoa edo zati bat itzultzea eskatu ahal izango diote onuradunari.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEA

Bete beharreko [formularioaz](#) gain, laguntzak jaso nahi dituzten proiektuak formatu digitalean aurkeztu beharko dira (gehienez 3MB), eta gutxienez honako hauek jasoko dira:

- Proiektuaren aurkezpen zehatza.
- Talde artistikoaren aurkezpena, nahi den kanpo-begirada eta proposatutako bitartekaritza-jarduera barne.
- Behin-behineko ekoizpenaren aurrekontua.
- Prestakuntza-kezken zerrenda.

Bete kandidatura-inprimakia modalitatearen arabera **www.karrikan.eu** -n

Zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan karrikan.kudeaketa@gmail.com

Idazkaritza Teknikoa KARRIKAN :

Jemima Cano (+34) 622.790.220

Eider Zaballa (+34) 669.710.117

EGUTEGIA

- 2025eko abuztuaren 14a: Deialdiaren hasiera.
- 2025eko urriaren 8a: Deialdiaren itxiera (gauerdian).
- 2025eko urriaren 24a: Aurrez hautatzea. Egun berean jakinarazten zaie.
- 2025eko urriaren 30a: Gipuzkoako Dantzagunean (Errenteria) aurrez hautatutako finalistekin hitzorduak euren proiektuak aurkezteko eta proiektuen azken hautaketa. Egun berean jakinarazten zaie.
- 2025eko azaroa: Aukeratutako konpainiekin hitzordua, jarduerak, egutegia eta abar zehazteko eta parte hartuko duten jaialdien daten berri ematea. Urriaren 30eko azken aukeraketaren ondoren zehaztuko da data.
- 2025eko azaroaren eta 2027ko maiatzaren artean: Sorkuntzarako Laguntzak.
- 2026ko azarotik 2027ko ekainera: Bitartekaritza-jarduerak.
- 2027ko maiatza eta iraila bitartean: Plataformako kideen ekitaldietan ikuskizunak erakustea.

KARRIKANENKO BAZKIDEAK

- Bilboko Udala (Bizkaia)
- Leioako Udala (Bizkaia)
- Gasteizko Udala (Araba)
- Hendaiaiko Udala (Lapurdi)
- Antsoaingo Udala (Nafarroa)
- Iruñako Udala (Nafarroa)
- TOPADA Fabrika, Karrikako arteen Fabrika (Iparralde)
- **KARRIKAN** Elkarte

KARRIKAN ELKARTEKO KIDEAK

- Arrigorriagako Udala (Bizkaia)
- Lezoko Udala (Gipuzkoa)
- Zarauzko Udala (Gipuzkoa)
- Errenteriako Udala (Gipuzkoa)
- Gipuzkoako Dantzagunea (Gipuzkoa)
- Garaion Sorgingunea (Araba)
- Zirkodomoa (Bizkaia)

2016TIK KARRIKAN EK HAUTATUTAKO KONPAINIAK

2016-2017: Cía Eva Guerrero - El fin de las cosas

2017-2018: Mystérieuses Coiffures -Xori gizonaren elezaharra - La légende de l'homme oiseau

2017-2018 : Amaia Elizaran - Block

2018-2019: Collectif Eflirkoa - Echo

2019-2020: Berdinki - Mikra

2019-2020: Arriera - Eden

2022-2023: Piszifaktoria Ideien Laborategia - Asfaltoaren azpian, euria

2022-2023: Batcharte Dantza Kia - Sor(tu.e)gina

2023-2024: DAB - Noued

2024-2025: Garazi Egiguren – Argilunak

2025-2026: Bitsa-Ni errekadista nintzen